

MUNITIBARKO UDALA EUSKARA ZERBITZUA

2013 URTEAN BURUTUTAKO HAINBAT EKINTZA




1. Familia transmisioa

1.1. Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

1.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

1.1.1.2. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...



- .- **KU-KU haurrekin hitz egiten hasteko** liburuxoa eta CDa argitaratu da.
- .- Alkarbiderekin batera **"abereen eskola" 2013-2014 eskola agenda** argitaratu da.
- .- Urte osorako, IRRIEN LAGUNAK aldizkariaren 4 harpidetza ere egin dira, Herriko Eskolaren esku utzi eta haren edukiak bertako haurrek lan ditzaten (kultura, euskara, zientzia...).

1.1.2. KOMUNIKAZIOA

1.1.2.1. Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneeetan eskuragarri jarri



- .- 2013-2014 urteetarako Euskarazko Produktuen Katalogoa argitaratu da.

2. Euskalduntzea-prestakuntza

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

2.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

2.1.3.1. Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko.



.- Herrian euskara ikasteko aukerarik ez dagoela-eta, talde bat sortzeko aukera eskaini da, aek-k irakaslea jarrita. Ikasle nahikorik egon ez eta azkenean ez da talderik sortu.

2.1.4. IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI

2.1.4.1. "Mintzalagun" proiektua jorrazteko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna... [Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide egitasmoak eta gisakoak]

NitikGura

**ZELAN KONTATU
IPUINAK ETA
OLERKIAK UMEEI**
Literaturaren ahozko ballabideak lantzeko talerra

Yolanda Arrieta Malaxtebarria
(www.nitikgura.com)

NORENTZAT 0-7 urteko umeen guraso, zainzaile, hezitzaile eta bihurtzekorientzat

SAIO KOPURUA Lau saio taller modura + saio bat umeen aurrean

SAIOEN IRAUPENA Bi ordu: **17,30-19,30**

DATAK **IRAILAK 12, 19, 26 eta 27**

LEKUA **MUNITIBARKO UDALETXEKO EKITALDIEN ARETOAN**




PROGRAMA

IRAKURKETA OZENA
Begiak eta begirada
Ahoak eta ahotsak
Eskuak eta harnak
Beltzaria, hotzak, silabak
ZU eta NI, berrantzez eta onintze

POESIA esagutzera
Dona-dona, esku jokoak, dramatizazioak, kantak, haikuak, gaurok poesia
Zentzuen suspertzea

BAT-BATEKO KONTAKETAK
Abitapuntua eta egiturak
Formulak

LINK INTERESGARRIAK ETA BIBLIOGRAFIA GAURKOTUA
Azken saioa umeen aurrean egingo da, talerrean landutakoan erakusgarri



EZETZ IGARRI!!

**Euskal Kultura eta Euskara
gai daukazan LEHIAKETA**
Urria - Abendua
2013



**EVSKARA
ala ez gara**

-Astero bi galdera-
-Asmatutako galderako puntu bat-
**Abenduan, puntu gehien lortu daberen herritarren artean
sariak banatuko dira**

ZELAN EMON ERANTZUNA?

- Ondoko kuxatxoan sartu erantzuna. Edo...
- Helbide elektronikoa honetara bialdu: urtzi@ekilore.net
- Jarri beharreko datuak: Izena-Abizenak-Helbidea-Kontakturako telefonoa.

Antolatzailea: Munitibarko Udala
Euskara Zerbitzua



EZETZ IGARRI!!

**Euskal Kultura eta Euskara
gai daukazan LEHIAKETA**
Urria - Abendua
2013

SARIAK

1. SARIA
IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA ETA ZUMALAKARREGI
MUSEOA - BISITA GIDATUAK
ETA
MUTILOAKO "ORUE" LANDETXEAN ASTEBURUA
BI LAGUNENTZAKO (2 GAU+2 GOSARI).



2. SARIA
BERTAKO PRODUKTUEKAZ OSATUTAKO
OTZARA EDER BAT



Antolatzailea: Munitibarko Udala
Euskara Zerbitzua



1.- Yolanda Arrieta ipuin kontalari ezagunak "Nitik Gura" saioak eman zituen Munitibarren irailean zehar, ipuinak eta olerkiak umeei zelan kontatu irakasteko.

2.- Aurten ere, euskal kultura eta euskara gai dituen EZETZ IGARRI lehiaketa izan dugu Munitibarren.

4. Administrazioa

Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

EBPN eta Erabilera Planak garatu eta koordinatzeko Ekilore Aholkularitzako teknikari baten eta UEMAREN laguntza eduki dugu.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

<http://ekilore.net>

<http://www.uema.org>

6. Aisia

6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu

6.1.3. EKITALDIAK ANTOLATU

6.1.3.1. Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietakoa (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...).

- 1.- Antzerki tailerra: Beste urte betez, eskolarekin batera, hurrei zuzendutako antzerki tailerra antolatu da. Helburua, euskaraz, hurren adierazpena lantzea izan da. Tailerra eta gero, bertan ikasitakoarekin antzezlanaren aurkezten dute jendaurrean.
- 2.- Bertso eskolak: Munitibarko eskolarekin elkarlanean eta hurrei zuzenduta, urtean zehar emon da eskolan bertan. Horretarako, Bizkaiko Bertso eskolako irakasle bat etorri da eskolek iraun bitartean.
- 3.- Yolanda Arrieta ipuin kontalariak haurrentzako saioa eman du Udal Liburutegian.

BURUTU DIREN BESTE HAINBAT EKINTZA:

- UEMak merkatarientzako egutegia argitaratu du.



- Izen-abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak egin dira:

